



EBAZPENA, 2022ko uztailaren 22koa, Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Helduen Ikastetxeetako 2022-2023 ikasturterako ekintza guztiak burutzeko zenbat irakasle beharko diren eta dotazioa nola banatu behar den zehazteko irizpideak arautzekoa.

1.- Eremua eta helburua.

Ebazpen hau honako hauei aplikatuko zaie: helduentzako aurrez aurreko ikasketak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei.

Ebazpen honek aurreko paragrafoan aipatutako ikastetxeetarako 2022-2023 ikasturterako irakasleen dotazioak zehaztu nahi ditu, zenbat beharko diren eta nola banatu.

2.- Ikastetxe bakoitzeko eskola-orduak kalkulatzeko

2.1.- Irakaskuntza arautuko eskola-orduak.

Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendariak erabakiko du zehatz irakaskuntza arautuko I. mailako, II. mailako eta III. mailako zenbat talde izango diren ikastetxe bakoitzean 2022-2023 ikasturtean. Kurtso kopurua zehazteko, ikastetxe bakoitzeko zirkulu bakoitza eta eskolak emateko txanda bakoitza (goizekoa, arratsaldekoa eta gauekoa) hartuko ditu kontuan.

Honela: maila, zirkulu eta eskola-txanda bakoitzerako, 2021-2022 ikasturteko lehenengo lauhilekoan horietako bakoitzean matrikulatutako ikasleen benetako kopurua (Kudeaketa Akademikoaren aplikazioan datorrena) izango da oinarria. Esparruen matrikulazioan desberdintasun handiak dauden taldeetan, esparrukako matrikulazioa kontuan izango da. Datu horri Helduen Ikastetxe publikoen 2021-2022 ikasturtea antolatzeke Hezkuntza Sailburuordeak emandako ebazpenaren 4.1. atalean zehaztutako ratioak aplikatuko zaizkio. Alegia, 20 ikasle talde bakoitzeko Hasierako Ikaskuntzaren I graduan, eta 30 ikasle Hasierako Ikaskuntzaren II graduan edo Bigarren Hezkuntzan. Nolanahi ere, aipatutako atal horretan hala esanda dagoenez, kasu batzuetan egongo da aukera ratio hori handitzeko, kontuan hartuta ikasleak arloka matrikulatzen direla, eta ikasturtea hasitakoan jende askok egiten duela atzera.

Zentro bakoitzeko araututako irakaskuntzako eskola-orduak ateratzeko, bider 12, 12 eta 15 egingo dira, hurrenez hurren, aurreko paragrafoan zehaztutako irizpideak aplikatuta zentro bakoitzari dagozkion I. Mailako, II. Mailako eta III. Mailako taldeak.



2.2.- Arautu eztao irakaskuntzako programa lehenetsietako eskola-orduak.

Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzak zehaztuko du euskara edota atzerritarrek gaztelania ikasteko zenbat kurtso egongo diren, eta 2022-2023 ikasturtean ikastetxe bakoitzak 25 urtetik gorakoak eta 45 urtetik gorakoak Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetara edo unibertsitatera sartzeko probak prestatzeko zenbat kurtso izango diren ere zehaztuko du. Kurtso kopurua zehazteko, ikastetxe bakoitzeko zirkulu bakoitza eta eskolak emateko txanda bakoitza (goizekoa, arratsaldekoa eta gauekoa) hartuko ditu kontuan. 25 urtetik gorakoak eta 45 urtetik gorakoak Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetara edo unibertsitatera sartzeko probak prestatzeko ikastaroetan, irakatsiko den gai bakoitzean ariko diren ikasleek talde bana osatuko dute. Ikasle sartu berrientzako harrera-programak eta nazionalitatea lortzeko programak espainierako eta euskararako ikastaroen izaera bera izango dute, baldin eta hizkuntza irakastea bada programa horien funtsezko edukia.

Maila, zirkulu eta eskola-txanda bakoitzean zenbat talde egongo diren zehazteko, horietako bakoitzean 2021-2022 ikasturteko lehenengo lauhilekoan horietako bakoitzean matrikulatutako ikasleen benetako kopurua (Kudeaketa Akademikoaren aplikazioan datorrena) izango da oinarria, eta matrikulazio-datu horri talde bakoitzeko 30 ikasle ratioa aplikatuko zaio. Talde bakoitza baimentzeko beharrezkoa izango da 15 ikasle gutxienez izatea, Hezkuntza Sailburuordeak emandako ebazpenaren 3.2. atalean xedatzen den arabera.

Ikastetxe bakoitzari araututako irakaskuntzako zenbat eskola-ordu dagozkion jakiteko, ariketa hauxe egin behar da: 6 x atzerritarrek euskara edota gaztelania ikasteko talde kopurua, 3 x 25 urtetik gorakoak eta 45 urtetik gorakoak Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetara edo unibertsitatera sartzeko probak prestatzeko ikastaroetako talde kopurua (aurreko paragrafoan zehaztutako irizpideak aplikaturik ikastetxe bakoitzean).

2.3.- Arautu eztao irakaskuntzako beste programa batzuetako eskola-orduak.

Ikastetxeren batek aurreko paragrafoan aipatu ditugun programa lehenetsi horietatik kanpo dagoen beste arautu gabeko irakaskuntzako ikasketa-programaren bat ere landu nahi badu, horretarako ordu batzuk ere onartuko zaizkio, honela kalkulaturik: ebazpen honetako 2.1 eta 2.2 ataletan kalkulaturik orduak batuta ateratzen den kopuruaren % 5.

3.- Ikastetxe bakoitzeko eskolarik gabeko orduak kalkulatzea

3.1.- Zuzendaritzako lanetarako orduak.



Helduen ikastetxe publikoetan 2021-2022 ikasturtea antolatzeko Hezkuntzako Sailburuordeak emandako ebazpenaren 5.1.3.d) atalak ezarririk duenaren arabera, zuzendaritzako kargua dutenak beren lana behar bezala betetzeko moduan egon daitezen, ikastetxe bakoitzari ordu batzuk emango zaizkio ikastetxeak arautu eztao irakaskuntzan matrikulatuta dituen ikasle ofizialen kopuruaren arabera. Alegia, 2021-2022 ikasturteko lehenengo lau hilekoan araututako irakaskuntzan matrikulatutako ikasleen benetako kopurua (Kudeaketa Akademikoaren aplikazioan datorrena). Ondorengo taula honetan dago zehaztuta ikastetxe bakoitzari zenbat ordu dagozkion kudeaketa administratiboko lanetarako:

Ikasle kopurua	Dagozkion orduak
0-200	15
201-400	21
401-600	24
601-800	27
801-1000	31
1001-1200	35
1201-1600	38
1600 baino gehiago	43

3.2.- Lau urterako zuzendaritza izateagatik dagozkion orduak.

Ikastetxeren batean, bertako zuzendaria lau urterako izendatu badute (aurrez, otsailaren 3ko 22/2009 Dekretua aplikatu beharrez, merituen lehiaketa eginik), 8,5 ordu emango zaizkio ikastetxeari baldin, gutxienez, araututako irakaskuntzako 30 talde baditu, edo 6 ordu, baldin 30 talde baino gutxiago baditu. Ebazpen honetako 2.1 atalean ezarrita dagoen moduan zehaztuko da taldeen kopurua.

3.3.- Hainbat herri edo auzotan eskolak emateagatik dagozkion orduak. (B aukera)

Egoitza batean baino gehiagotan eskolak ematen dituzten ikastetxeei hainbat ordu emango zaizkie, eskolak zenbat egoitzetan ematen dituzten aintzat hartuta. Ondorengo taula honetan dago zehaztuta ikastetxe bakoitzari zenbat ordu dagozkion eskolak hainbat egoitzetan emateagatik:

Ikastetxeak zenbat egoitzatan ematen duen eskola	Dagozkion orduak
2-3	3
4-5	6
6-7	8,5
8-9	11
10-11	14
11 baino gehiago	17



3.4.- Kudeaketa akademikorako orduak.

Kudeaketa akademikoko lanak behar bezala burutzeko, ikastetxe bakoitzari hainbat ordu emango zaizkio, araututako irakaskuntzan dauzkan ikasleen arabera. Ebazpen honetako 2.1 atalean ezarrita dagoen moduan zehaztuko da taldeen kopurua. Ondorengo taula honetan dago zehaztuta ikastetxe bakoitzari zenbat ordu dagozkion kudeaketa akademikoko lanetarako:

Talde kopurua	Dagozkion orduak
0-11	6
12-23	8,5
24-35	11,5
35 baino gehiago	17

3.5.- Kudeaketa administratiborako orduak.

Kudeaketa administratiboko lanak behar bezala burutzeko, ikastetxe bakoitzari hainbat ordu emango zaizkio, araututako irakaskuntzan dauzkan ikasleen arabera. Ebazpen honetako 2.1 atalean ezarrita dagoen moduan zehaztuko da ikasle kopurua zenbatekoa den. Ondorengo taula honetan dago zehaztuta ikastetxe bakoitzari zenbat ordu dagozkion kudeaketa administratiboko lanetarako:

Ikasle kopurua	Dagozkion orduak
0-199	0
200-349	8,5
350 baino gehiago	17

3.6.- Eskolarik gabeko beste orduak

Ikastetxe bakoitzak ordu jakin batzuk izango ditu dagokion zuzendaritzak beren beregi baimendutako murrizketa eta proiektuengatik.

4.- Ikastetxeak guztira zenbat irakasle izango dituen zehaztea.

Honela zehaztuko da ikastetxeak guztira zenbat irakasle izango dituen:

- Ordu metagarrien totala kalkulatu da, eskola-orduak eta eskolarik gabeko orduak batuta (ebazpen honen 2. eta 3. Ataletan xedatuta dagoena aplikatuz).



- Total hori zati 17 egingo da. Eragiketa horrek ematen duen zenbakia ez bada osoa, eta bere hamarrena 0,5 edo gutxiago bada, 0,5 hamarrenera biribilduko da. Hamarrena 0,5 baino gehiago bada, hurrengo zenbaki osora biribilduko da.
- Horrela aterako den zenbakiak ikastetxeak espezialitate arruntetarako, gehienez, zenbat irakasle izango dituen adieraziko du. Hortik gora, Hezkuntza Orientazioko irakasleak baino ezin izango dira gehitu.

5.- Irakasleak nola banatu kidego eta espezialitateetan

Ikastetxe bakoitzak dagokion plaza guztiak kidego bakoitzean eta kidego bakoitzeko espezialitateetan banatzeko proposamena taxutuko du eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaritzari bidaliko. Indarrean dagoen araudiak kidego eta espezialitate bakoitzean mailak eta ikasgaiak irakasteko atribuzioak errespetatu behar ditu proposamenak.

6.- Plazen hizkuntza-eskakizuna ezartzea

Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzak zehaztuko du plaza bakoitzak zer hizkuntza-eskakizun eta zer derrigortasun-data izango duen, ikasleek Euskadiko hizkuntza ofizialetatik nahi duten hizkuntzan ikasteko aukera izango dutela ziurtatzeko moduan. Ikastetxean behin betiko destinoa duten irakasleek daukaten hizkuntza-eskakizuna aintzat hartuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 22a

IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA

Sin: Eugenio Jimenez Ibañez